



# Aintzat hartzeko modukoa



## APOA ETA BESTE MAILUX LEGORBURU

MAIATZ, 1998

### ARITZ GALARRAGA

**O**kertzeko tarte handirik gabe, *Maiatz* argitaletxearen harrobiko emaitza gisa aurkez genezake Mailux Legorburu. Liburu formatuan argitaratu dituen lanak oro, lau, egoitza Baionan daukan argitaletxean agertu baitira. Eleberriak dira hiru, *Zozoaren kanta* (1993), *Ahizpa, non zira?* (2009), *Maitatua izandu banintz* (2013). Ipuin liburu momentuz bakarra, *Apoa eta beste* (1998). Hain justu, ondorengo lerroetan aletuko duguna, sorpresa pizar batekin aletu ere.

Sorpresa, estreinako nobela irakurria bainion, eta ez baininduen askorik konbentzitu. Ez behintzat Juan Luis Zabalen hau sinatzeko beste: "Estreinaldi bikaina, beraz, egile berri eta gazte honena, aintzat hartzeko modukoa zinez". Esaldi horren bigarren parteari kasu

eginez, ordea, ekin diot, zuhurtziaz beti ere, ipuin bildumaren irakurketari. Eta, homogeneoa baino beste ezer den arren –ez da, adibidez, alegiak biltzen dituen liburu bat–, tarte honetan berean aipatu genuen Miguel Torgaren piztia gordin, goxo, anker, hunkigarri saldo hura ekarri dit gogora tarteka, hezur-haragizko gizon-emakumeak gehiegi gogorarazten dizkiguten *Apoa*, *Zakurra* edo *Trikua*, zeinean "haur ttiki bat eta triku zahar bat ari ziren kalakan", esan dezagun filosofikoki: "Denetan asegurantzia holako gauza ederra ote da?".

Baina, aipatu dugu, bada gehiago. Ipuin kafkiarrak –*Bertzea izan*: "Egun batean bere nortasuna kurutzatuz, ez zuen ezagutu"–, suspensedunak –*Iheska*: "Armario haundiaren giblean gordea han egoki zen emaztea"–, txantxa

gisakoak –*Ardiak*, nahiz karga sozialarekin: "Hezurretaraino sartua zuten administrazio, gobernamentu, justizia eta bertze holakoetan ez fidatzea"–, eta abarrekoak. Agian besteak baino nabarmengarriagoak bi: familia sortu eta emakume baten bakardadea islatzen duena bata –*Bakartasuna*: "Denborarekin, lehenago aitz hurbil ikusten genuena urrundu da"–, emakume heldu baten maitasun berri bat harrapatzen duena bestea –*Maite banauzu*: "Neska gazte bat bezain hunkitua naiz, nere emazte esperientzia guziaz ahantzia dut"–.

Nobelak, beraz, ez ninduen konbentzitu, eta sorpresa atsegina hartu dut bilduma hau irakurrita. Aintzat hartzeko modukoa zen, hartara, noski, Marie Louise Legorbururen literatura. Ipuin sorta honengatik, besterik ez bada. ●